

## **EH BILDU LAUDIOK JAI EREDUA ERALDATZEKO AUKERA BERRIA SUSTATU NAHI DU**

***EH Bildu Laudiok balioan jarri nahi du audioarrek jaien antolakuntzan eta gozamenean erakutsitako grina, eta Udalan jorratu nahi duen gobernantza egitasmoarekin bat etorritz, jai eredu partehartzaile, eraikitzaile eta herrikoa martxan jartzeko konpromisoa agertzen du.***

Aurtengo Laudioko Jaiak ezohiko testuinguruan ospatu dira, izan ere gobernu aldaketa gauzatu berri zegoen, ekainaren 17an, txupinazoa jaurtitzeko bi hilabete baino falta ez zirenean. Hau da, Gobernu Talde berriari jaien prestakuntza ixtear zegoela jardutea egokitu zaio. Testuinguru horretan, EH Bildu Laudioaren jokaeraren ardatza antolakuntzan inplikaturako eragileen lanarekiko errespetua eta elkarlana bultzatzea bilakatu da. Horrez gain, herritarren parte-hartzea ahalbidetu du barraken edo kart lasterketaren kokapena erabakitzean eta ahalegin berezia egin du jai eredu feministan sakontzeko, emakumeei oholztatan presentzia gehiago eskainiz eta mugimendu feministarekin elkarlana sustatuz.

EH Bildu Laudioaren aburuz, oposiziotik gobernantzarako jausiak agerian utzi ditu jai eredu berri baterako lehen erronkak zeintzuk diren. Alegia, Laudiok gardentasuna eta parte-hartzea bermatuko dituen jaien prestakuntzarako prozedura behar du, bilera deialdi publikoetan eta egitasmoen lanketa partekatuan oinarritutakoa. Ezin liteke berriro gertatu lan bileren deialdi eta akta publikorik ez egotea edota ikuskizunen kartelaren prestakuntza isilean gauzatzea.

EH Bilduk beste jai eredu batean sinisten du, irekia eta partehartzailea, herriak modu eraikitzailean Laudioari egokitzen zaizkion jaiak sortu ditzan, finean, guztion artean erabakiko direnak. Jai herrikoiak eta hurbilak, euskara eta euskal kultura ardatz izango dituztenak eta herriaren aniztasun kultural eta sozialari erreparatuko diotenak. Aldaketa horren adierazle izan beharko dute, besteak beste, jai espazioen antolaketa, aurrekontuen zehaztapena eta garapen arduratsua edo herriko jai guztien egutegiari buruzko hausnarketa partekatua ahalbidetzea.

EH Bildu Laudiok argi dauka Laudioko Jaien bizkarrezurra kuadrillak eta herriko kultur, kirol eta gizarte eragileak direla, haiei dagokie jaien antolaketaren protagonista izatea eta beraiekin batera elkarrekin lan egiteko gogotsu gaude. Jai egitarauan parte hartzen duten eragileek eta udal langileek egiten duten lan guztia eskertzea baino ez zaigu geratzen. Biba zuek!

2024 urteko Laudioko Jaiak aukera berri bat izango dira EH Bildurentzat, taldearen balioak gure herri maitearekin partekatzeke eta jai eredu berri bat abian jartzeko.

## **EH BILDU LAUDIO QUIERE IMPULSAR UN CAMBIO DEL MODELO FESTIVO**

***EH Bildu Laudio quiere poner en valor la pasión que las y los laudioarras han puesto en la organización y disfrute de las fiestas y, en consonancia con el modelo de gobernanza que se propone desarrollar en el Ayuntamiento, muestra su compromiso para poner en marcha un modelo festivo participativo, constructivo y popular.***

Las fiestas de Laudio de este año no se han desarrollado en el contexto habitual, ya que el cambio de gobierno se acababa de producir el 17 de junio, a dos meses vista del lanzamiento del chupinazo. Es decir, el nuevo Equipo de Gobierno ha comenzado su andadura con el programa festivo casi cerrado. En esa situación el eje de actuación de EH Bildu se ha basado en el respeto y colaboración con el trabajo realizado por todas las entidades implicadas en la organización de las fiestas. Además, se ha facilitado la participación vecinal en decisiones como la ubicación de las barracas o la carrera de karts, y realizando además un especial esfuerzo para profundizar en un modelo festivo feminista, ofreciendo mayor presencia a las mujeres sobre los escenarios y promoviendo la colaboración con el movimiento feminista.

Para EH Bildu Laudio el salto de la oposición a la gobernanza ha supuesto la identificación de los principales retos en el desarrollo de un nuevo modelo festivo. Y es que Laudio necesita que se garantice la transparencia y la participación en la preparación de las fiestas, de forma que las convocatorias de las reuniones preparatorias sean públicas y el desarrollo de las iniciativas sea compartido. No puede volver a ocurrir que las convocatorias y actas de las reuniones no sean públicas o que el cartel de espectáculos se confeccione en secreto.

EH Bildu apuesta por otro modelo festivo, abierto y participativo, para que sea el pueblo quien, de forma constructiva, cree las fiestas que Laudio se merece, basadas en decisiones compartidas entre todas y todos. Unas fiestas populares y cercanas, con el euskera y la cultura euskaldun como eje y reflejo de la diversidad cultural y social del pueblo. Deberán ser ejemplo de esa transformación, entre otras, reflexiones sobre la organización de los espacios festivos, la concreción de los presupuestos y su utilización responsable, o el calendario de las diferentes fiestas del pueblo.

EH Bildu Laudio tiene claro que la columna vertebral de las Fiestas de Laudio son las cuadrillas y los agentes culturales, deportivos y sociales del pueblo, a quienes corresponde ser protagonistas de su organización, y con quienes esperamos trabajar de forma conjunta. No podemos más que agradecer todo el trabajo realizado por todas las entidades que han trabajado en el programa festivo, así como a las trabajadoras y trabajadores del Ayuntamiento. Biba zuek!

Las Fiestas de Laudio de 2024 van a ser una nueva oportunidad para EH Bildu en la que compartir con nuestro amado pueblo los valores de nuestro grupo de cara a poner en marcha un nuevo modelo festivo,